



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 Ikasturtea

# INGELESAREN INGURUKO MOTIBAZIOA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENGAN

**Egilea:** Izar Verhorst Altuna

**Zuzendaria:** Nora Aranberri Monasterio

Leioan, 2018ko maiatzaren 28an.

## AURKIBIDEA

1.	Sarrera .....	3
2.	Esparru teorikoa eta funtzionala .....	5
2.1	Motibazioaren kontzeptua .....	5
2.2	Kontzeptuaren eboluzioa eta teoriak.....	6
2.3	Motibazioa hezkuntzan .....	9
3.	Helburuak .....	11
4.	Metodologia .....	12
4.1	Behaketa-tresna .....	12
4.2	Testuingurua.....	14
5.	Emaitzen analisisa .....	17
6.	Hausnarketa finala.....	24
7.	Erreferentzia bibliografikoak .....	26
8	Eranskinak.....	28
8.1	Galdetegi originalaren aldagaiak.....	28
8.2	Galdetegi euskaraz .....	30
8.3	Galdetegi gaztelaniaz.....	32

## INGELESAREN INGURUKO MOTIBAZIOA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENGAN

Izar Verhorst Altuna

UPV/EHU

### Laburpena

Ingelesa menperatzearen beharra gero eta gehiago areagotzen ari da, aitzitik, ikasleen ingeles mailak nahiko pobrea izaten jarraitzen du. Hurrengo orrialdetan, Lehen Hezkuntzako ikasleek, testuinguru zehatz batean, ingelesaren aurrean aurkezten duten jarrera aztertuko da, ikerketa baten bidez. Horretarako, galdetegi bat sortu da Lehen Hezkuntzako 200 ikasleek erantzun dezaten zeinetik 50 3. mailakoak, 45 4. Mailakoak, 52 5. mailakoak eta 53 6. mailakoak izan diren. Ikerketaren emaitzek ikasleek ingelesaren aurrean aurkezten duten jarrera ezagutzea, ulertzea eta aztertzea ahalbidetu dute; baita ikasleek, adinaren arabera ingelesarekiko duten motibazioaren interpretazioa egitea ere.

*Ingelesa, ikaskuntzarako jarrerak, atzerriko hizkuntza, motibazioa, Lehen Hezkuntza.*

### Resumen

El dominio de la lengua inglesa es una necesidad que no para de crecer, sin embargo, el nivel de inglés del alumnado sigue siendo bastante pobre. En las próximas páginas se presenta un estudio sobre la actitud que el alumnado de un contexto específico presenta ante el inglés. Para ello, se crea un cuestionario dirigido a 200 estudiantes de Educación Primaria de los cuales 50 son de tercer curso, 45 de cuarto, 52 de quinto y 52 de sexto. Los resultados del estudio hacen posible conocer, entender y examinar la actitud que tiene el alumnado frente al inglés, y también interpretar la motivación hacia el inglés que prevalece en cada curso investigado.

*Inglés, actitudes ante el aprendizaje, lengua extranjera, motivación, Educación Primaria.*

### Abstract

English proficiency is a need that keeps growing. However, the English level of students remains quite poor. In the next pages a study about the attitude towards English of students in a specific context is presented. To this end, a questionnaire was created and directed to 200 students of Primary Education out of which 50 are from 3<sup>rd</sup> grade, 45 from 4<sup>th</sup>, 52 from 5<sup>th</sup> and 25 from 6<sup>th</sup> grade. The results of this questionnaire allow us to know, understand and analyse the attitude of the students towards English and also to interpret the motivation that prevails in each grade.

*English, attitude to learning, foreign language, motivation, Primary Education.*

## 1. Sarrera

Ingelesa ikasteko beharra nabarmenagoa bihurtzen ari da gizarte honetan. Gutxienez ere, hurrengo oporretan edozein tokitan ibiltzeko, gustuko bideoak Youtube kanalean ikusteko, gustuko abestien letra ulertzeko eta abesteko edo ordenagailu zein mugikorreko aplikazioak erabili ahal izateko. Hala ere, nahiz eta ingelesa bizitzan gero eta ezinbestekoagoa izan, errealitatea bestelakoa da: gaur egun herrialde honetan ingelesa menperatzen duen biztanleriaren ehunekoa oso baxua da.

EF *English Proficiency Index*-aren arabera, 2017 urtean Europa mailan, Espainia 28. postuan kokatu da hiritarren ingeles mailaren arabera, 56.06 puntu dituelarik.<sup>1</sup> Espainiaren atzetik beste hainbat herrialde egon arren ez dago pozik egoteko arrazoirik. Egia esan, gaur egungo hezkuntza sistemak ingelesaren ikaskuntza Haur Hezkuntzatik bultzatzen du, haurrak txikitatik ingelesarekin kontaktuan egon daitezzen. Beraz, emaitzek positiboagoak izan beharko lukete.

Haur Hezkuntzako Curriculumak (237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa) jada aipamen egiten dio ingelesari, bere kasuan, atzerriko hizkuntza izendatuta. Etapako helburuetan argi islatzen dira ingelesaren irakaspenari erreferentzia egiten dioten bi helburu (37.orr.):

“5) Hizkuntza ofizialetan eta inguruneko hizkuntza askotarikoetan komunikatzeko jarrera irekia izatea, beste errealitate eta kultura batzuk deskubritu eta errespetatzeko.

6) Atzerriko hizkuntza bat komunikazio-xedez erabiltzen hastea, ikasgelako egoera normaletan parte hartzeko.”

Horrekin lotuta, Curriculumak, aipatutako helburuak lortzeko zenbait eduki zehazten ditu. Hori dela eta, ingelesaren presentzia haur bakoitzaren ibilbide akademikoaren hasieratik nabarmena dela esan daiteke, haur hezkuntzatik lehenengo hastapenak emanda eta lehen hezkuntzan garrantzi handiagoa emanez. Beraz, zergatik bildu dira horrelako emaitza negatiboak ingeles gaitasunean? Txikitatik ikasten badugu, nahiz eta

---

<sup>1</sup> <https://www.ef.com/es/epi/regions/europe/spain/>

gaztelaniari edo euskarari bezain ordu kopuru berdina ez eskaini, nola liteke derrigorrezko hezkuntzako etapa guztietan ikastea eta hala ere elkarrizketa simple bat mantentzeko kapazak ez izatea?

Horren arrazoiak askotarikoak izan daitezke, batik bat:

- Ingelesa hizkuntza akademikotzat hartzen da: eskolatik kanpo ez dago inolako kontakturik, gurasoek oro har ez dakitelako ingelesez eta lagunen artean ez dutelako erabiltzeko beharrik; hizkuntza ezezagunean aritzerakoan barregarri sentitzeko ikara; telebistako saio guztiak herriaren hizkuntzan itzulita egotea; irakasleen prestakuntza falta.
- Kasu batzuetan, ingelesa irakasteko materiala, munduko beste toki bateko adituek sortua da eta ez du testuinguruaren araberako egokitzapenik izaten, hortaz, ikasleen aurreiritziak eta interesak kontuan ez hartzeak, ingelesa ikasteko zailtasunak ekartzen du. (Mercau, 2009).

Beste zenbait arrazoi ere aipatu daitezke, baina, egia esan, aipatutako bi hauek, espero den ingeles maila ez eskuratzeko arrazoi nagusiak direla esan daiteke. Are gehiago, aurreko arrazoi horiek fenomeno komun oso garrantzitsu baterantz bideratzen gaituztela esan daiteke, hau da, motibaziorantz. Morón-en (2011) hitzetan “La forma de organizar la actividad, el tipo y forma de interacción, los recursos, los mensajes que el maestro/a transmite, la evaluación,... unas veces motivan a los alumnos/as y otras no. Idea que determina la motivación” (1.orr.). Hau da, azken finean, ingelesari ematen zaion ikuspegi okerrak eta irakasleen formakuntza ezak, ikasleen motibazio eza dakar, eta hori da, orduan, ikasleek ingeles maila eskuratzea oztopatzen duen arrazoi: Motibazio falta.

Hurrengo orrialdeetan, ingelesaren ikaskuntzaren emaitza negatiboei buruz arituko da eta horretarako, motibazioari garrantzi handia emango zaio. Beraz, lan honen helburua, atzerriko hizkuntzaren motibazioari buruz sakontzea da, motibazioak ingeleseko klaseetan duen eragina eta gaur egungo egoera zein den aztertzea. Horretarako, erreferentziako testuak aztertu eta marko teoriko bat osatuko da, ondoren, errealitate konkretu bat ikertuko da eta hasierako galderen erantzuna bilatuko da.

## 2. Esparru teorikoa eta funtzionala

Motibazioa ikasleen ingelesaren jabetzaren giltza nagusienetako bat bezala identifikatu da. Atal honetan, beraz, motibazioa definitu eta testuingurua zehatzago batean kokatuko da.

### 2.1 Motibazioaren kontzeptua

Motibazio hitza aztertzerakoan, hurrengo lerroetan islatuko den bezala, definizio mota ezberdinak agertzen dira. Horietako bat hau da:

De entre todas las variables afectivas, la motivación se destaca como la de mayor trascendencia para nuestra profesión; ahora bien, ésta no debe ser considerada como un constructo monolítico sino constituido por varios componentes estrechamente interrelacionados. (Barrios, 1997, 18.orr.).

Horretaz aparte, Carrillo, Padilla, Rosero eta Villagómezek (2009) etimologikoki latinetik *motivus* (mugimendua) hitzetik datorrela aitortzen dute. “Es aquello que mueve o tiene eficacia o virtud para mover; en este sentido, es el motor de la conducta humana” (Carrillo et al., 2009, 21.orr.). Hau da, jarduera bat burutzeko interesa nahi batek esnatzen du, era berean, interes hori da pertsona ekintza hori burutzera bultzatzen duena. Interes horrek jatorri psikologiko zein fisiologikoa izan dezake.

Beste definizio bat Pintrich eta Schunk-ena (Boza eta Toscano, 2012-n aipatua) da, motibazioa barneko egoera edo baldintzatzat definitzen dute zeinen arabera jokabide bat aktibatu, gidatu eta mantenduko duen. Beste hitz batzuekin esanda, giza-jokabidearen aktibatzailea dela motibazioa.

Motibazioa askotan definitu den hitza da eta bakoitzean interpretazio ezberdina jasotzen du. Hona hemen beste zenbait definizio:

- “Un conjunto de factores que incluye el deseo de lograr un objetivo, el esfuerzo dirigido a esa consecución y el refuerzo asociado con el acto de aprendizaje.” (Gardner, Barrios, 1997n, 18.orr.).
- “El concepto de motivación también es muy complejo y se emplea con varios sentidos. El uso más frecuente se refiere al proceso interviniente o al estado

interno de un organismo (individuo) que lo conduce hacia una acción determinada.” (Manzaneda, 1997, 158.orr.).

- “Raíz dinámica del comportamiento; es decir, los factores o determinantes internos que incitan a una acción.” Koontz eta Wehrich (Suchar, 2015n, 2.orr).
- “Norberaren portaera zuzentzen duen faktore-multzoari esan diezaiokegu motibazioa.” (Sanz, 2007, 2.orr.).
- “En Psicología y Filosofía, la motivación son los estímulos que mueven a la persona a realizar determinadas acciones y persistir en ellas para su culminación” (López, 2008, 133.orr).
- “La motivación es aquello que inicia, mantiene y convierte en más o menos intensa la actividad de los individuos para alcanzar una meta”. (Benjumea, 2011n, 27.orr.).

Hala ere, ikerketa honi lotzen zaion definizio aproposena, bere osotasunagatik eta hezkuntzarekin duen loturagatik Dörnyeirena (Cristofolen, 2015 zititzen den moduan) dela esan genezake: “un fenómeno formado por cuatro compuestos: la fijación de un objetivo, el deseo de alcanzar dicho objetivo y las actitudes favorables hacia una actividad y un esfuerzo en particular.” (6.orr.).

## **2.2 Kontzeptuaren eboluzioa eta teoriak**

Motibazioaren definizioak ez du beti ikuspuntu berdina izan, historian zeharreko ikuspegiaren arabera, honen definizioa aldatuz joan da. Orain arte, motibazio hitzaren zenbait definizio aurkeztu badira ere, esan beharra dago historian zehar motibazio hitzaren ekarpen ezberdinak egin izan direla eta beraz, teoria ezberdinak garatu direla. Lópezek (2009) baieztatzen du, eredu tradizionalen, motibazioa interesa ekonomikoan zentratzen zela baina azkenean, kontzeptu oso pobrea gelditu zela. Ondoren, motibazioa giza harremanen ondorio gisa definitzen zuten adituek; kontzeptu hau ere oso sinplifikatua gelditu zen, aldagai bakarrari egiten baitzion erreferentzia. Beraz, ikuspuntu berria bilatu nahian, 90-hamarkadatik aurrera, motibazioari buruzko ikerketak antolaketa dinamikoetan oinarritzen hasi ziren, ikaskuntzak parte hartzen duen testuinguruetan barneraturik (Lasagabaster, 2010). Gaur egun, berriz, motibazioak esanahia konplexua du, eta hainbat eta hainbat teorien ondorio da. Era berean, motibazioari buruzko teoria asko sortu dira, atal honetan, hedatuenak aipatuko dira.

Teoria bat, **Maslow** (1943) *Gizakien Beharrizanen Piramidea* da. Maslow-k dio motibazioa gizakiak bere beharrizanak asetzeko duen bulkada dela. Hobeto azaltzeko, Gizakien Beharrizanen Piramideak bost beharrizan mota azaltzen ditu:



1.irudia: Maslowren piramidea<sup>2</sup>

Piramidean agertzen den moduan, Maslowk, bost beharrizan horiek bi taldetan banatzen ditu, lehen mailakoetan eta bigarren mailakoetan. Bi maila hauen arteko bereizketa, kanpoko edo barruko beharrizanen artekoa da, hau da, lehen mailakoak barne-beharrak dira eta bigarren mailakoak, kanpokoak. Teoria honen arabera, norbait motibatu ahal izateko, pertsona zein mailatan dagoen jakin behar da eta hortik abiatu.

Victor H. **Vroomek** (1964) *Itxaropenen* teoria aurkeztu zuen. Teoria honek, motibazioa prozesuaren ikuspegitik azaltzen du, hau da, motibazioak duen eragina pertsonok helburu bat lortzerakoan. Horren arabera, teoriak dio, gizakia xedea lortzeko egin beharrezko jarduerak egiteko motibaturik sentituko dela soilik xedearen balioa eta hau lortzeko jardueren baliagarritasuna ziurtatu badu. Teoria honek testuingurua kontuan hartzen du, bai norberaren ezaugarriak eta aldagaiak eta baita ingurukoak.

Vroomek dio, azken emaitzak ez duela ondorioztatzen langilearen esfortzua, horretaz aparte egon badaudelako zenbait kanpo aldagai langileak berak ezin dituenak kontrolatu (López, Parra eta Rubio, 2017). Psikologoak hiru aldagai identifikatzen ditu:

- Itxaropena: esfortzu eta jardueren arteko erlazioa da.
- Indarra: jardueraren eta ordainaren arteko erlazioa da.
- Ahalmena: ordaina eta xede pertsonalen arteko erlazioa da.

Hirugarren teoria bat **Herzberg** (1966) psikologoaren *Bi faktoreen teoria* da. Teoria hau lan-munduan oinarrituta dago. Teoria honen ideia nagusia gizabanakoaren asebetetzea

<sup>2</sup> <http://hezten.blogspot.com.es/2012/04/maslow-en-piramidea.html>



edo ase gabetzea eragiten duten aldagaiak ezberdinak direla da. Hau da, asebetetzea eragile intrintsekoen arabera da eta ase gabetzea eragile estrintsekoen arabera. Gauzak horrela, Herzbergek motibazioa, bi aldagaien arabera deskribatzen du:

- Aldagai higienikoak. Aipatutako aldagai estrintsekoak, hau da, gizabanakoa inguratzen duen aldagai mota: giroa, soldata, harremanak, lan-postua, estatusa.
- Aldagai motibatzaileak. Aipatutako aldagai intrintsekoak, hau da, lan-postuaren edukia eta horrek dakarren ardura, askatasuna, baliabide pertsonalen erabilera.

Aldagai higienikoak ezin hobekak direnean, langilearen ase gabetzea saihestea lortzen da, baina ez langilearen motibazioa; langilea ez delako identifikatuta sentituko egiten duen lanarekin eta, ondorioz, frustraturik sentituko delako. Motibazioa jardueren zailtasun maila handituz lortu daiteke, horrek, langileak dituen baliabide eta ezagutzak aktibatzerara behartzen baitu eta erronka pertsonala izatera motibatu.

**Locke** (1968) psikologoak *Xedeen finkatze teoria* aurkeztu zuen. Lockeren ustez, xede bat lortzearen intentzioa oinarritzko motibazio iturria da. Baina, zer da xedea? Trecheraren hitzetan (Naranjo, 2009n zitatzen den moduan) xedea pertsona batek atzematen saiatzen duen hori da, ekintza baten amaiera. Teoria honen arabera, xede batek motibatzailea izateko faktore hauek izan behar ditu:

- Xedearen ezagutza.
- Burutu nahi den ekintzaren onarpena.
- Xedearen zailtasuna; erronka bat inplikatu behar du, baina ez atzemanezina.
- Espezifikotasuna; gero eta zehatzagoa, orduan eta errazagoa esfortzua aplikatzea.

Beste teoria bat, **Alderferren** (1969) *ERG teoria* da. Alderfer adituak (Castro, 2013-n aipatzen den moduan) Maslowren piramideak enpirismo falta zuela salatu zuen eta baita mailen arteko zurruntasuna, banaketa. Alderferrek, orduan, Giza beharizanen piramidea oinarri izanda, esperientzian oinarritutako ikerketa baieztatzen duen piramidea sortu zuen, Maslowren bost maila zurrunkak, hiru maila malgu eta bateragarriekin birmoldatuz. Alderferren ERC teoria gizabanakoaren hiru beharretan oinarritzen da: izatea (izate materialaren beharizanak), harremanak (harreman interpertsonalak izateko

beharrizanak) eta etekinak (garapen pertsonala bultzatzen duen norbanakoaren barrutiko desioaren beharrizana).

ERG teoriak, Maslowren teoriarekin alderatuz, beharrizanen arteko elkarreragina aldarrikatzen du. Maslow-ren piramideak progresio zurruna du, eskala bidezkoa eta Alderferren teoriaren arabera, berriz, norbanakoak edozein beharrizan ase dezake, aurretik beste beharrizan bat asetzeko betebeharririk izan gabe. Alderferren teoria Maslowrena baino onartuago dago, lehenengoak pertsonen arteko ezberdintasunei buruzko ezagutza, hau da, testuingurua (hezkuntza, kultura, familia) sendotzen duelako (López, Parra eta Rubio, 2017).

### **2.3 Motibazioa hezkuntzan**

Behin motibazioaren definizioa eta honen inguruko hainbat teoriak azalduta, jarraian, testuinguru espezifikoko batean kokatuko da. Gogoratu beharra dago, gainera, ikerketa honen xedea ikasleek ingeleseko klaseetan duten motibazioa aztertzea dela. Horregatik eta motibazioak hezkuntzan ikasketa-irakasketa prozesuan duen garrantzia ikertu nahi delako, motibazioa, hezkuntzaren aldetik ikertuko da.

Hezkuntzan, motibazioarenganako interesa (bigarren hizkuntzaren lorpenean) 50. hamarkadan azaldu zen, Canadian, Lambert-en eskuetatik (Ramajo, 2008n zitatzen duen moduan) eta, hortik aurrera, bigarren hizkuntzen eremuan motibazioari ikuspegi soziala ematen zioten zenbait eredu teoriko garatu ziren. Eredu edo teoria horien artean, Gardner, Lambert eta beste kide batzuen teoria da eragin handiena izan duena. Honen arabera, ikasle baten motibazioa hiru eragilek zehazten dute (Ramajo, 2008):

1. Hizkuntza berria ikasteko eta erabiltzeko desioa
2. Hizkuntza berri honen ikaskuntzarako jarrera
3. Norberak esfortzuak egiteko duen nahia

Motibazioa bigarren hizkuntzaren irakaspen-ikaspenaren osagai gisa hartzerakoan, hezkuntzan aldaketa handia egin da. Izan ere, ikaste-prozesua mekanizatu eta memorizazioan oinarritzeari utzi eta faktore sozialek hartu dute indarra apurka-apurka. Horrek esan nahi du, 50. hamarkada hartatik aurrera, ikasleen interesak, jarrerak,

testuingurua eta, noski, motibazioa kontuan hartzen hasi zirela, beti ere hezkuntza sistema hobetu edo gizabanakoaren interes eta beharretara egokitu nahian. Gainera, Gardnerren teoriak bi motibazio mota ezberdintzen ditu (Centro Virtual Cervantes):

- Motibazio integratzailea: interes soziokulturalak sortutako motibazioa da, hau da, hizkuntza berri hori ingurukoekin komunikatzeko ikasi nahi du ikasleak.
- Instrumentuzko motibazioa: interes praktikoak sortutako motibazioa da, emaitza akademikoak hobetzea, adibidez.

Gauzak horrela, motibazio integratzailearen barruan denboran iraugarriak izango diren interesak sartuko dira, egunerokotasuna baloratuko da. Motibazio instrumentala, aitzitik, interes zehatzek definitzen dute, helmuga edo amaiera duten interesek.

Gaur egun, motibazioak hezkuntzan eragin handia du (Naranjo, 2009). Baina, ikasleen motibazioa aztertzeke, Martinezek (Díaz eta Morales, 2015n zitaten den moduan) adierazten du, aditu askoren ustetan, motibazioaren barruan azaltzen diren aldagaiak aztertu behar direla eta horren bateratasunak zehaztuko duela motibazioa. Horien artean, integrazioa, jarrerak, komunikazio beharrak, kuriositatea eta interesa daude.

Pintrich eta de Grootek, ordea, (Naranjo, 2009n zitaten den moduan) motibazioa hezkuntzaren eremuan aztertzeke arrazoiak azpimarratzen dituztenean, ikasleen emozioak motibazioaren aldagai garrantzitsutzat hartzen dituzte. Aditu hauek, hezkuntza eremuan ezberdintzen diren hiru maila adierazten dituzte (163.orr.):

(...) la primera se relaciona con un componente de expectativas, que incluye las creencias de las personas estudiantes sobre su capacidad para ejecutar una tarea; la segunda se asocia a un componente de valor, relacionado con sus metas y sus percepciones sobre la importancia e interés de la tarea; la tercera, a un componente afectivo, que incluye las consecuencias afectivo-emocionales derivadas de la realización de una tarea, así como de los resultados de éxito o fracaso académico.

Sailkapen honen arabera, aditu hauen hitzetan, pertsona batek ikasketa-prozesu batenganako motibazio maila altuagoa aurkeztuko du norberaren gaitasunean sinesten badu eta auto-efikaza izateko itxaropenak baditu. Gauzak horrela, aipatu diren aldagai horiek (jarrerak, interesak, emozioak, aurreiritziak, sinesmenak) ikasleek edozer ikasteko motibazioa baldintzatzen dute.

### 3. Helburuak

Lan honen nondik norakoa motibazioa dela aipatu da behin eta berriro, motibazioa ingeleseko klaseetan, alegia. Horretarako, motibazioa zer den eta lan hau garatzen den eremuan, hezkuntzan, zein eragin duen aztertu da. Are gehiago, ikusi da ikasleen motibazio faltak, jasotzen duten ingeles klase ordu kopuruaren eta eskuratzen duten ingeles mailaren desorekan zeresana duela eta ikasketa esanguratsua gertatzea oztopatzen duela.

Lan honen helburua, hortaz, errealitate hori aztertzea izango da, hau da, Lehen Hezkuntzako ikasleen motibazioa aztertzea, ingeleseko ikasgaiarekiko eta orokorrean ingelesarekiko duten motibazioa.

Horretarako, ikerketa galdera zehaztuko da: Nolakoa da ikasleek ingelesarekiko duten motibazioa? Zeintzuk dira ingelesari buruz dituzten sinesmenak?

Galdera hauek, hasierako orrialdetan (ikusi Sarrera) planteatu den errealitatea azaltzeko asmoz finkatu dira. Orain, motibazioaren marko teorikoa erreferentziatzat hartuta, galderak erantzutea izango da ikerketaren xedea.


#### **4. Metodologia**

Lan hau, ikerketa lana da. Ikerketa honen bidez, aurretik esan den bezala, ikasleek, euren adinaren arabera, ingelesari buruz dauzkaten sinesmenak behatuko dira. Hau da, ikasleak, euren adinaren arabera, ingelesarekiko dituzten usteak jaso eta aztertuko dira, eta ondorioz, uste hauen berri jakingo da.

Ikerketaren bidez, egoera edo testuinguru bat behatu, ulertu eta deskribatu daiteke. Kasu honetan, testuinguru espezifiko bat ezagutzeko eta aztertzeko erabiliko da ikerketa. Ikerketa honek ahalbidetuko duena eremu batean, momentu zehatz batean gertatzen dena aztertzea da, zehatzago esanda, egingo dena momentuan dagoen egoeraren azterketa (urte ezberdineko adinak kontuan hartuta) da. Hala ere, aipatu beharra dago, egoera baten azterketa egitean, kontrolatu ezin daitezkeen aldagaiak ere badaudela, adibidez, irakasle ezberdinak izatea. Hala eta guztiz ere, ikerketa honetan egingo dena momentuan dagoen egoeraren deskribapena da, lagina osoak komunean dituen aldagaietan oinarrituta. Aldagai horiek, testuinguru berdinean egoteagatik aintzat hartuko direnak dira, adibide gisa, eskola berdinean ikastea eta metodologia oinarri berdina erabiltzea.

##### **4.1 Behaketa-tresna**

Esan bezala, ikerketaren helburuak lortzeko galderak testuinguru zehatz batean formulatuko dira eta behaketa bat eginez, hauei erantzunak emango zaizkie. Behaketa, *galdetegi* baten bidez burutuko da. Galdetegia *La investigacion de los factores motivacionales en el aula de idiomas* (Madrid, 1997) artikuluan motibazioari lotzen zaizkion aldagaiak aztertzeko erabilitako galdetegian oinarrituko da. Galdetegi horrek pertsonen iritziak eta sinesmenak norberaren motibazio egoeretan eragiten dituztela defendatzen du; hortaz, ikasleak norberaren prozesu motibatzaileei buruz dituen iritziak aztertzeko, egileak, motibazioaren inguruko kontzeptua adierazten du non aldagai guztiak agertzen diren:



2.irudia: Modelo para el análisis de los procesos motivacionales (Madrid (1999, 70.orr.)).

Eskema hau burutu ostean, aldagai guztiak aztertu eta ikasleari motibazioan eragiten dion aldagai bakoitza aztertzeko galdetegi aurkezten du egileak (Ikusi galdetegi originalak 8.1 eranskinean).

Esan beharra dago, galdetegi original horien moldaketak egin behar izan direla. Honen arrazoia, laginaren adina da; hots, Madrid-en galdetegi Bigarren Hezkuntzatik gorako ikasleek betetzeko diseinatu da. Ikerketa honetan, ordea, galdetegiak Lehenengo Hezkuntzan erabili nahi izan dira eta adin tarte horretako ikasleen ulermen gaitasunera moldatu dira galderak. Zenbait irizpide kontuan hartuta, aldaketa batzuk egin behar izan dira, galdetegiaren hizkuntza (gaztelaniatik euskarara), hizkuntza-egokitasuna (galderak sinplifikatu dira) eta luzera (4 aspektutara mugatu da, jarraian aipatuko den bezala), hain zuzen ere. Bestela, ikasleek galdetegi egiteko arazoak izan zitzaketela aurreikusi zen, eta beraz, nahiz eta enpirikoki oinarri berdina ez erabili, ikasleek galdetegi ulertzearen helburuari eman zaio lehentasuna eta ez originalaren berdina izateari.

Gauzak horrela, galdetegi originalean zehaztutako 17 aldagaietatik, ikerketa honetan, 1., 2., 11. eta 17. aldagaiak hartu dira ikasleek ingelesari buruz dituzten sinesmenak eta, horrekin lotuta, ingeleseko klaseetan sentitzen dituzten emozioak eta baita ingelesari buruz duten iritzia, ikuspuntua eta itxaropena, hain zuzen ere, aztertzeko.

Hortaz, Madrid-en (1999) galdetegiak aldagai motibatzaileak ikertzeko planteatzen duen ereduaren barruan, ikerketa honetan ikertu nahi diren aldagaien helburuak hartu dira, ikerketa honen galdetegiaren mamia zehazteko (75-76.orr.)

1. Conocer la intensidad de los antecedentes causales de los estados motivacionales iniciales del alumnado.
2. Conocer los motivos y razones principales que mueven al alumnado a estudiar la L2 (orientación).
11. Conocer la frecuencia con que se usan en clase los factores motivadores extrínsecos e intrínsecos relacionados con las situaciones de enseñanza y aprendizaje en el aula.
17. Conocer las reacciones emocionales que han experimentado los sujetos una vez finalizados determinados periodos de instrucción con la L2/LE (trimestral, anual, bianual, ...). (Madrid, 1999).

Horrela, aipatu diren adierazleei erreferentzia egiten dieten galdetegiaren ereduak hartu dira bertatik eta ikerketa honen galdetegia sortu da (Ikusi galdetegia 8.2 eranskinean).

Aipatu beharra dago, galdetegia egin den testuinguruan (Ikusi 4.2 testuingurua) badaudela Euskal Herrira etorri berriak diren atzerritarrak; ondorioz, galdetegi honek eskatzen duen euskara mailak ikasle hauekin sor ditzakeen oztopoak aurreikusita, ikasle espezifikoko hauentzako, galdetegi berdina gaztelania hizkuntzara itzuli zen; edukia berdina da, aldatzen den gauza bakarra, hizkuntza da (Ikusi 8.3 eranskina).

## **4.2 Testuingurua**

Ikerketa hau aurrera eramateko eta, esan bezala, behaketa non burutzeko testuingurua aukeratu behar da. Kasu honetan, Bilbo hirian dagoen ikastola bat izango da, eta lagina, 3., 4., 5., eta 6. mailako ikasleak.

Ikastola hau aukeratzearen arrazoiak, besteak beste, hauek dira: ingelesa hizkuntza menperatzeko lau trebetasunak (reading, writing, listening, speaking) modu orekatuan lantzen dira; metodologia aldetik, ingeleseko klaseak liburu gabe daude planteatuta, eta beraz, dinamikoagoak izaten dira material didaktiko erakargarriagoa erabiliz (fitxak, abestiak, mapa kontzeptualak); alde komunikatiboari garrantzi handia ematen zaio, aurkezpenak eta elkarrizketak sustatuz; eskolen arteko komunikazio internazionala bermatzen du (bidaiak Londresera, postalen elkar-trukea Italiako eskolekin, etab.). Horretaz aparte, niri dagokidanez, ondo ezagutzeko aukera izan dudana eskola da, bertan,

hiru hilabetetan zehar, azkenengo Practicum egin dudalako. Honek, eskolaren eta ikasleen behaketa egiteak ahalbidetu dit eta, beraz, lan hau egiteko testuinguru aproposa dela ziurtatzea.

Ikastolak, metodologia orokorraren aldetik honako aspektu hauek sustatzen ditu:

- Ikaskuntza esanguratsua
- Ikasleek euren garapenaren protagonistak
- Gaitasun guztien garapena
- Ikasten ikastearen sustapena
- Ikaslearen lan autonomoaren hobespena
- Ikasleari ikasteko eta lana antolatzeko tekniken eskaintza
- Aniztasunaren aurrean, ikaskuntza integratzailea
- Talde lanaren sustapena
- Euskara maila ona lortzeko baliabide eta didaktiken eskaintza

Hizkuntzaren aldetik, Ikastola D ereduakoa da, eta beraz, euskaraz garatzen dira materia guztiak (gaztelania, ingelesa eta frantsesa izan ezik). Lehen Hezkuntzan ez du ikaskuntza hirueledunik eskaintzen; DBHko 1. mailan, bestalde, Gizarte Zientziak ikasgai materia erdia ingelesez eta beste erdia euskaraz ikasten dute ikasleek, hala ere, teoria ingelesez ikasten dute. DBHn ere Britainia Handira joateko aukera daukate, ama hizkuntza ingelesa duen testuinguru ezagutu, ulertu eta interpretatu dezaten.

Dena dela, ikerketa honek intereskoa duen etapa Lehen Hezkuntza da eta, honetan, dena euskaraz ikasten dute. Hala ere, egon badaude zenbait programa ingelesarekin eskolaz kanpoko kontaktua izateko eta eskolan ikasitakoa esanguratsua bihurtzeko. Zenbait esperientzia eskaintzen du ikastolak, hala nola, LHko 4. eta 5. mailakoek *Nazioarteko eskola* proiektuetan parte hartzen du non Europako beste eskola batzuekin harremanetan jartzen diren, gutunen, bideoen eta marrazkien bidez.

Beraz, ingelesaren irakaskuntzaren inguruan esan daiteke komunikazioan oinarritutako ikuspuntua lantzen dutela eta hizkuntza honen erabilgarritasuna erakusteko eta sustatzeko ekimenak egiten dituztela. Horrekin, espero da, ikasleak kontziente izatea hizkuntza honen beharraz eta gaur egungo gizarte globalizatuan elkarbizitzarako ekar



ditzakeen onurez. Beraz, galdetegia izango da ikerketaren tresna eta lagina, ikastolako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6 mailako ikasleak dira. Adin hauetako ikasleak aukeratzearen arrazoia, adin ezberdineko ikasleetan egon daitekeen progresioa edo joera da. Beste modu batean esanda, adinaren ikuspuntutik aldea daukan lagina aukeratu da, ikasleen portaera adinaren ikuspuntutik ere behatu ahal izateko.

Hasiera batean, 1. eta 6. mailako ikasleak aukeratzea pentsatu zen, etapako bi muturrak islatu nahian, baina, galdetegiaren praktikotasunean zentratuz, 1. eta 2. mailako ikasleen heldutasun, autokontzientzia eta irakurmen eta idazmen garapen faltagatik, 3.maila aukeratzea erabaki zen, honela ere, laginaren bi taldeen arteko aldea nahikoa dela uste baita. Beraz, 3. eta 6. mailakoak laginaren muturreko adinak izanik, laugarren eta bosgarren mailakoak ere sartzea erabaki zen; era honetan, ikasleen iritzia, hirugarren mailatik seigarren mailara aztertzeko, bi adin hauen artean gertatzen dena ere aztertuko da. Guztira, 200 ikaslek hartu dute parte galdetegian.

	3.maila (A-B)		4.maila (A-B)		5.maila (A-B)		6.maila (A-B)		Guztira
Ikasle kopurua	26	24	24	21	26	26	26	27	200

*1.taula: Galdetegia bete duten Lehen Hezkuntzako ikasleen lagina.*

## 5. Emaidzen analisia

Ikasleek egindako galdetegiak behatu eta aztertu ostean, atal honetan, galdetegiaren emaitzak plazaratuko dira. Galdetegiak, aurreko atalean azaldu den bezala, lau bloke ditu: (1) *zergatik ikasten duzu ingelesa?*, (2) *ingelesean ona zara?*, (3) *noizbait gertatu zaizkizu egoera hauek?* eta (4) *zenbatetan bizi izan dituzu emozio hauek ingeleseko klaseetan?*. Emaitzak ere, blokeka emango dira.

Lehenik eta behin, galdetegi guztiak aztertu dira eta mailaka, ikasleek adierazpen bakoitzari eman dioten erantzunen batezbestekoak zehaztu dira. Gainera, tartean, erantzun deigarrienen azterketa sakonagoa egingo da. Nahiz eta batezbestekoetan muturreko erantzunak (1 eta 5) ez agertu, ikasleen emaitza indibidualak aztertuko dira ea benetan muturreko erantzunak eman dituzten edo ez ziurtatzeko eta berdinak edo oso antzekoak diren bi batezbestekoen eraketa ezberdina dagoen edo ez frogatzeko.

### 1.blokea: Zergatik ikasten duzu ingelesa?

<b>Zergatik ikasten duzu ingelesa?</b>	<b>3.maila</b>	<b>4.maila</b>	<b>5.maila</b>	<b>6.maila</b>
1- Beste herrialde batzuetatik bidaiatzeko eta hango jendearekin hitz egin ahal izateko.	4,04	4	4,21	4,35
2-Bilbora etortzen diren kanpoko pertsonekin hitz egin ahal izateko.	3,42	3,53	3,5	3,39
3- Ingelesez hitz egiten duten lekuetan bizi ahal izateko (New York, Londres...).	2,66	3,19	3,78	4
4- Munduko edozein tokitan lan hobea lortzeko.	3,28	3,47	3,61	3,86
5- Gauza gehiago ikasteko.	4,46	4,42	4	4,16
6-Telebista, irratia ingelesez esaten dutena ulertzeko.	3,7	3,43	3,53	2,88
7- Eskolako ingelesa ikasgaia gaitzetzeko.	4,28	4,12	4	3,98
8- Hizkuntza berri bat eta bere kultura ezagutzeko eta ikasteko.	4,28	4,13	3,78	4,3





*2.taula: Lehenengo blokearen emaitzen batezbestekoak*

Taulan aurkezten den legez (Ikusi 2. taula), ikasleek ingelesa ikasteko emandako arrazoiak oso aintzakotzat dituzte, emaitza gehienak 3 eta 4 bitartekoak baitira. Badirudi orokorrean emaitzen arteko aldeak ez direla oso handiak (0,5 baino txikiago, batik bat). Orokorrean, maila ezberdinen arteko emaitzek gorabeherak aurkezten dituzte, 3., 5., eta 8., adierazpenetan izan ezik, hauetan ibilbide bat eratu baita (gorantz edo beherantz).

Badirudi, orokorrean, galdeketa parte hartu duten ikasle gazteenek ez diotela garrantzi handirik ematen ingelesa ikasteari, euren bizitzan beste leku batean bizitzeko aukera izateko, baizik eta ikasgaia bera gainditzeko ekiten diotela ingelesari. Ikasleen adina gora doan heinean, ordea, kontrakoa gertatzen da: ingelesa ikastearen motibazioa aldatzen doa eta ikasgaia bera gainditzeko garrantzia galtzen duen bitartean, euren bizitzetan Bilbotik kanpo joatearen aukerari arreta jartzen diotela ikusten da.

Horretaz aparte, bloke honetako hirugarren adierazpenaren erantzunen frekuentziak aztertu direnean, maila ezberdinetako batezbestekoak eratzeko frekuentziak berdinak edo ezberdinak izan diren behatu dira. Modu honetan, nahiz eta batezbestekoak berdinak izan, ikasleen erantzunak ezberdinak izan daitezkeela arrazoitu daiteke. *Ingelesez hitz egiten duten lekuetan bizi ahal izateko (New York, Londres...)* adierazpenean, maila bakoitzeko batezbestekoen eraketak aurkeztu dira, frekuentzia datuekin (Ikusi 3. adierazpenaren erantzunen frekuentziako Histogramak).

### 3. adierazpenaren erantzunen frekuentziako Histogramak



Grafiko hauetan, ikusi daiteke, adibidez, laugarren mailako erantzunen frekuentziako histograman, batezbestekoa 3,19koa izan arren, grafikoan mota guztietako erantzunak eman direla, hortaz, batezbestekoa ez da lortu gehienek 3 erantzun dutelako, baizik eta emaitza mota guztien baturak 3 eman duelako. Seigarren mailako erantzunetan, berriz, 4

batezbestekoa ateratzeko, ikasleen artean laugarren mailan baino ikasleen arteko adostasun handiagoa sumatzen da.


2. blokea: ingelesean ona zara?

Ingelesean ona zara?	3.maila	4.maila	5.maila	6.maila
1-Uste dut kapaz naizela ingelesa ikasteko.	4,42	4,48	4,38	4,54
2-Uste dut ingelesean nota onak aterako ditudala.	4,06	4,08	4,11	3,98
3-Ingelesa ikasteko gogoia daukat.	4,3	4,33	4,36	4,43
4-Ingelesean nota onak ateratzeko gogoia daukat.	4,62	4,84	4,84	4,77
5-Ariketak zailak direnean ere, ingelesa ikasteko gogoia daukat.	4,4	4,08	3,92	4,15
6-Ingelesez hitz egiten duten pertsonekin egoteko eta haiekin hitz egiteko gogoia daukat.	3,64	4,17	4	4,09

3. taula: Bigarren blokearen emaitzen batezbestekoak

Bloke honen erantzunen batezbestekoak (Ikusi 3.taula) 4 zenbakiaren ingurutik mugitzen dira eta beraz ikasleek beraien ingelesa ikasteko gaitasunaz nabarmen fida direla erakusten dute. Oro har, emaitzek mailen arteko gorabeherak erakusten dituzte; hots, ez dute gorako edo beherako ibilbidea eramaten. Ikusten da, 3. eta 5. adierazpenetan, maila guztietako ikasleen batezbestekoa 4 atera dela (4 eta ingurutik). Hala ere, hirugarren adierazpenaren erantzunen frekuentziak aztertu dira, maila ezberdinetako batezbestekoak eratzeko modua berdina edo ezberdina diren zehazteko.

3. adierazpenaren erantzunen frekuentziako Histogramak



Hemen aurkezten diren grafikoen arabera (ikusi 3. adierazpenaren erantzunen frekuentziazko Histogramak), *Ingelesa ikasteko gogoa daukat* adierazpenak, ikasleen erantzunen frekuentziak nahiko berdintsuak dira; antzeko tendentzia jarraitzen dute lau grafikoetan, hau da, 5 erantzunak maiztasun handia du eta gainerako erantzun motak 3 edo 4 izan dira gehienbat, adin ezberdinen artean 3 eta 4 erantzunen frekuentzien maiztasunak haien artean trukutzen direlarik. Bukatzeko, 1 eta 2 erantzunen maiztasuna oso txikia edo nulua izan dira lau kurtsoetan.

3.blokea: Noizbait gertatu zaizkizu egoera hauek?

<b>Noizbait gertatzen zaizkizu egoera hauek?</b>	3.maila	4.maila	5.maila	6.maila
1-Klasean parte hartzen dut.	3,92	4,2	4,05	3,75
2-Klasean ez dut parterik hartzen, bakarrik andereñoak/maisuk eta nire ikaskideek esaten dutena entzuten dut.	1,94	2,13	2,4	2,09
3-Ingelesean emaitza eta nota onak lortzen ditut eta espero nuena betetzen da.	4,06	3,97	3,92	4,05
4-Andereñoak/maisuk, ikasten duguna zertarako den azaltzen digu.	4,37	4,73	4,23	4,25
5-Ingelesean ikasten duguna zertarako den badakit.	4,1	4,44	4,65	4,28





*4.taula: Hirugarren blokearen emaitzen batezbestekoak*

Bloke honetan ere ikusten da (Ikusi 4. taula) ingelesarekiko jarrera positiboa. Adierazpen askok joera berdina izan dute adin guztietan, 1. adierazpenean, esate baterako, kurtso guztietan ikasleen parte hartzeen erantzunen media antzekoak izan dira, emaitza nahiko altuekin; ez-partehartzearen emaitzak baxu puntuatu dira guztietan ere, 2arekin (gutxi gorabehera). Gainera, adin guztietan argi daukate irakasleak ikasten dutenaren zergatia azaltzen duela, batez bestekoak, 4 baino altuagoko puntuazioarekin.

Emaitzetan gehiago sakontzearen, 4. adierazpenaren batezbestekoak aztertuko dira (Ikusi 4. adierazpenaren erantzunen frekuentziazko Histogramak): egia esan, nahiz eta taulan kurtsoetan batezbestekoak oso parekoak direla ikusi, emaitzen frekuentzien grafikoak aztertzen badira, emaitzak ezberdinak izan direla esan daiteke. Grafikoetan ikusten denez, lau kurtsoetan 1 eta 2 puntuazioen frekuentzia oso txikia edo nulua izan da, 3, 4 eta 5 puntuazioen maiztasuna, berriz, aldatzen joan da. 3., 4. eta 5.kurtsoetan

frekuentzia handikoa 5 puntuazkoa izan da, 6.mailan berriz, 4 puntuazkoa. Gainera, behatzen jarraitzen badugu, 3 eta 4 puntuazioen gorabeherak ere ikusten dira.

4. adierazpenaren erantzunen frekuentziako Histogramak



4. blokea: Zenbatetan bizi izan dituzu emozio hauek ingeleseko klaseetan?





Zenbatetan bizi izan dituzu emozio hauek ingeleseko klaseetan?	3. maila	4. maila	5. maila	6. maila
1 Frustrazioa, haserrea.	1,82	2,02	2,11	2,11
2 Erlaxazioa.	3,58	3,57	3,46	3,71
3 Poza, alaitasuna.	4,32	4,28	4,25	4,28
4 Antsietatea, urduritasuna.	2,34	2,84	2,51	2,92
5 Ariketak bakarrik egin ahal izatearen segurtasuna.	3,7	3,97	3,76	3,96
6 Gauzak ondo egiten dudanean, besteek ni zoriontzea.	2,84	3,35	2,92	2,94
7 Sorpresa, harridura.	2,9	3,42	3,17	2,81
8 Klasean adi egoteko gogoia.	4,4	4,51	4,19	4,18
9 Ahaleginak egiteko gogoia.	4,24	4,48	4,34	4,2
10 Klasetik kanpo ingelesez komunikatzeko gogoia.	3,24	3,73	3,73	4,09

5. taula: Laugarren blokearen emaitzen batezbestekoak

Bukatzeko, laugarren blokeko emaitzak plazaratu dira (Ikusi 5. taula). Orokorrean emaitza positiboak badira ere, badaude esanguratsuak direnak. Adibidez, 7. adierazpenak, sorpresa eta harridurari dagozkionak, emaitza baxuenak lortu ditu eta baita 10. adierazpenak, klasetik kanpo ingelesa erabiltzeko gogoak adierazten duenak. Bestetik, badirudi, 7., 8. eta 9. adierazpenetan izan ezik, bosgarren eta seigarren mailen batezbestekoetan gorakada gertatzen dela; beraz, emozioen frekuentziak handiagoak izan direla esan daiteke.

10. adierazpenaren emaitzen azterketa sakona egin da. Ikasleek ingelesa eskolaz kanpo erabiltzeko desioa puntuatzerakoan, hauen batezbestekoak gero eta altuagoak izan dira, ikasleak nagusiagoak diren heinean. Hala ere, hori horrela den jakiteko, frekuentziako grafikoak behatuko dira (Ikusi 10. adierazpenaren erantzunen frekuentziako Histogramak).

#### 10. adierazpenaren erantzunen frekuentziako Histogramak



Ikusten den bezala, emaitzen frekuentziak batezbestekoekin bat egiten dute. Hau da, 3.mailan, batezbestekoa txikiena izanik, emaitzen puntuazioak baxuenak izan dira; ondoren, laugarren eta bosgarren mailako puntuazioak 1etik urrundu eta 4 eta 5

puntuazioek nagusitasuna hartu dute; bukatzeko, seigarren mailako grafikoan, 5 puntuazioa oso nabarmena da, horrela, batezbestekorik altuena sortuz.

Emitza hauetatik, zenbait ondorio atera daitezke. Alde batetik, erantzunen frekuentziazko Histogramek adierazi dute, kasu batzuetan, batezbestekoek ez dutela ikasleen erantzunen benetako frekuentzia ondo islatzen. Taulatan ikusten diren datuetan (Ikusi 2., 3., 4. eta 5. taulak) adinen arteko emaitzen ezberdintasunak agertzen dira eta emaitzek, laginaren lau adin ezberdinetatik, guztira, ibilbide ezberdinak jarraitu dituzte. Egia da, kasu gehienetan, ibilbide horiek gorabeherak izan dituztela, aitzitik, adierazpen batzuen ibilbideetan jarraitu den tendentzia gorakoa edo beherakoa izan da, baina norantza berdinekoa adin guztietan; horren adibidea, 2. taulako zazpigarren adierazpena edota 3. taulako hirugarren adierazpena dira.

Atal honetan aurkeztutako galdetegiaren emaitzetan oinarrituz, alde batetik, nabaritzen da, ikasleak nagusiagoak diren heinean, ingelesa ikasteko desioa klasetik kanpora zabaltzen dela eta ingelesa erabiltzeko tresna gisa ikusten dutela. Gainera, emaitzek ere ikasleak, gero eta nagusiagoak izan, euren gaitasunetan sinesten dutela adierazten dute eta, haiengan sinestearen ondorioz, euren autoestimua eta lan egiteko jarrera hobetzen direla, nota onak ateratzen dituztela. Bestetik, ikasleek, nahiz eta ingelesa klasetik kanpo gero eta gehiago erabili nahi izan, nagusiek adierazten dute ez dakitela zertarako ikasten dituzten ingeleseko edukiak, hau da, ez dakizkitez hauek aplikatzen. Horren kontzientzia ezak, ondorioz, klaseetan jarriko duten esfortzua eta interesa murrizten du.

Ikasleen sinesmenak aztertu direnean, emaitzek, ikasleek orokorrean ingelesa ikasteko motibazioa dutela erakutsi dute. Emitza taulak berriro ere behatzen badira (Ikusi 2., 3., 4. eta 5. taulak), ikasleen erantzunen batezbestekoen puntuazio altuak azpimarratu behar dira. Hala eta guztiz ere, frogatu da erantzun batzuetan, batezbestekoek ez dituztela ikasleen erantzunak ondo islatu, batezbestekoak ezkutatu egin baititu aldaketa esanguratsuak.



## 6. Amaierako hausnarketa

Ikerketa lanarekin bukatzeko, ikerketa galderaren erantzunak zeintzuk diren zehaztuko dira, beraz, Nolakoa da ikasleek ingelesarekiko duten motibazioa? Zeintzuk dira ingelesari buruz dituzten sinesmenak?

Aztertutako aspektuek erakutsi dute ikasle hauen motibazio maila nahiko altua dela orokorrean. Beraien ustetan, ingelesak gaur egun garrantzia du, etorkizunean nahi duten hori lortu ahal izateko eta ikasteko esfortzu maila handia egiten dute. Alde batetik, ikasle txikiak ingelesa beste ikasgai bat bezala ikusten duten bitartean, badirudi nagusiagoak direnak, ingelesak gure gizartean eta euren etorkizunetan duen garrantziaz ohartzen direla. Ondorioz, nahiz eta aspektu askotan sinesmen negatiboagoak izan (adidasuna, adibidez), hizkuntzaren eragina aintzat hartzen dute eta ingelesa ikasteko esfortzua egiten dute, honek duen garrantziaz kontziente direlako. Hala ere, identifikatu dira landu zitezkeen zenbait puntu, hobetze aldera. Lan honetan tarterik izan ez duen arren, interesgarria litzateke ikasleen motibazio emaitzok beraien ingeles mailarekin eta honen eboluzioarekin alderatzea, korrelazioen bat dagoen ikusteko.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, hausnarketa hau, ikerketa burutu den testuingurura mugatzen dela eta are gehiago, testuinguru horretan bertan ere, kontuan hartu ezin izan diren beste aldagai batzuk egon direla. Aipatu den legez, ikerketa honek egin duen behaketa, testuinguru zehatz bateko egoera zehatz bateko azterketa izan da, egoera baten plasma. Hortaz, ikasleen ezaugarriak, aurreiritziak eta baloreak berdinak izan direla aintzat hartu da eta ez dira irakasle ezberdinen edo familien ezaugarriak eta iritziak ikertu.

Ikerketa honek izan dituen mugak ere aipatzea komeni da. Alde batetik, ikerketako behaketa tresnaren eraginkortasuna eta galdetegi itxia izatearen aspektu negatiboak; argi dago, galdetegi itxia izanak, emaitzak jasotzerakoan alde negatiboak ere izan dituela, ikasleen erantzunen fidagarritasuna zalantzan jarri daitekeelako, galdetegiak anonimoak izatean, eman diren erantzunak zintzoak edo “espero direnak” diren ziurtatzeko. Hala eta guztiz ere, tresna honen alternatiba ikasleekin elkarrizketa egitea izango litzateke, baina, horrek ere, erabili den lagina kontuan hartuta, prozesua gehiegi luzatzen duela uste da.

Etorkizunerako lan bezala geratzen da metodologia aldatuta emaitza berak lortzen diren egiaztatzea.

Honen ildotik jarraituz, aipatu beharra dago ere, ikerketa honetan soilik ikasleen ikuspuntua eta iritzia jaso dela eta, beraz, emaitza hauek irakasleen ikuspuntuarekin kontrastatzea interesgarria izango litzatekela.

Gainera, galdetegian aztertu diren motibazioaren aspektu kantitatea txikia izan dela ere esan daiteke, motibazioaren aldagaiei buruzko ikerketa egiteko, beste hainbat hartzea komenigarria litzateke eta.

Edozein modutan ere, kontuan hartu behar da ikerketa hau ez dela gai honen inguruko beste ekarpen bat baino; lan honek ez du gai honen eztabaida itxi nahi, baizik eta ikertzen jarraitu. Horiek horrela eta gure ikerketari bukaera emanez, aipatu beharko litzateke orokorrean ikusi dela irakasleek irakasten dutena esanguratsua izan dadin, ikasleen iritziak, interesak eta sinesmenak kontsultatzea komenigarria dela, kasu honetan, ingeleseko ikaskuntza-irakaskuntza prozesu esanguratsua bermatzeko eta gaur egun ikasleek duten ingeles mailak, ibilbide akademikoan dituzten ordu kopuruarekin bat egiteko.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

- Alderfer, C. (1969). An empirical test of a new theory of human needs. *Organizational Behaviour and Human Performance*, 4 (2),142-175.
- Artxandape Ikastola, (2017-2018). Ikastolako informazio gunea. 2018/04/28an hartua, hemendik: <http://www.artxandape.net/index.php/eu/>
- Barrios, M.E. (1997). Motivación en el Aula de Lengua Extranjera. *Revista de Investigación e Innovación en la clase de idiomas*, 9, 17-30.
- Benjumea, M<sup>a</sup> A. (2011). Motivación del alumnado de segundo ciclo de educación secundaria, de la comarca de la vega de alta de granada en educación física escolar y en las actividades físico-deportivas extraescolares. Editorial de la Universidad de Granada.
- Boza, A., Toscano, M. (2012). Motivos, actitudes y estrategias de aprendizaje: aprendizaje motivado en alumnos universitarios. *Revista Profesorado*, 16(1), 125-142.
- Carrillo, M., Padilla, J., Rosero, T., Villagómez, M. (2009). La motivación y el aprendizaje, *Revista Alteridad*, 20-32.
- Castro, J. (2013). Teorías de la motivación. *Psicología UNED, Apuntes, exámenes y todo lo relacionado con el Grado de Psicología de la UNED y con el desarrollo personal*. 2018-03-20an hartua, hemendik: [http://psicouned2013.blogspot.com.es/p/teorias-de-la-motivacion\\_8144.html](http://psicouned2013.blogspot.com.es/p/teorias-de-la-motivacion_8144.html)
- Centro virtual cervantes, *Diccionario de términos clave de ELE*, 2018/04/18an hartua, hemendik: [https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca\\_ele/diccio\\_ele/diccionario/motivacion.htm](https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/diccio_ele/diccionario/motivacion.htm)
- Cristofol, B. (2015). Estudio de la motivación, actitud, estrategias y personalidad de los estudiantes de español como lengua extranjera. *Máster oficial en la Enseñanza de Español y Catalán como Lenguas Extranjeras*.
- Díaz, C. eta Morales, H. (2015). Creencias de estudiantes de primaria sobre el aprendizaje del inglés en un establecimiento educacional chileno. *Revista electrónica Actualidades Investigativas en Educación*, 15(1), 1-20.
- EF EPI Índice de English Proficiency (2017), 2018/05/20an hartua, hemendik: <https://www.ef.com.es/epi/>
- Haur Hezkuntzako Curriculum, 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa* (2015), Xedapen orokorrak, Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. 2018/05/20an hartua, hemendik: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- Herzberg, F. (1966). *Work and the nature of man*. Oxford, England: World.
- Lasagabaster, D. (2010). English achievement and student motivation in CLIL and EFL settings. *Innovation in Language Learning and Teaching*, 5(1), 3-18.
- Locke, E. (1968). Toward a theory of task motivation and incentives. *Organizational Behaviour and Human Performance*, 3(2), 157-189.
- López Jiménez, M<sup>a</sup> D. (2008). El motor de la educación. *Revista digital de educación, mundo educativo*, 31, 133.
- López Posada, L., Parra, M. eta Rubio, G. (2017). *Emprendimiento y creatividad*, ECOE ediciones.

- Madrid, D. (1999). La investigación de los factores motivacionales en el aula de idiomas. Grupo editorial universitario.
- Maslow, A. H. (1943). A theory of human motivation. *Psychological Review*, 50(4), 370-396.
- Manzaneda, F. (1997), Actitudes y Motivación en la Clase de Inglés. *The Grove*, 4, 153-171.
- Mercau, M. V. (2009), La Enseñanza Escolar Temprana del Inglés. *Casa del Tiempo* (vol. II, época IV (24), 43-46.
- Morón, M<sup>a</sup> C. (2011). La importancia de la motivación en educación infantil.
- Naranjo, M<sup>a</sup> L. (2009). Motivación: perspectivas teóricas y algunas consideraciones de su importancia en el ámbito educativo. *Revista Educación*, 33(2), 153-170.
- Palmero, F. (1997). Motivación: conducta y proceso. *Revista Electrónica Motivación y Emoción*, 8, 20-21.
- Ramajo, A. (2008). La importancia de la motivación en el proceso de adquisición de una lengua extranjera. *Memoria de Máster en la Enseñanza de Español como Lengua Extranjera, Universidad Antonio de Nebrija*.
- Sanz, O. (2007). Motibazioa eta heziketa. *Ikastorratza, e-Revista de Didáctica*, 1.
- Suchar, D. (2015). Modelos de motivación y liderazgo. *Desarrollo Organizacional y Gestión de Conocimiento, Doctorado en Ciencias Empresariales. Universidad Fidelitas, San José, Costa Rica*.
- Vroom, V.H. (1964). Work and motivation. Oxford, England: Wiley.

## 8 Eranskinak

### 8.1 Galdetegi originalaren aldagaiak

1. Antecedentes causales de la motivación: abiapuntu gisa, ikasleak, kurtso berri batean edo proiektu berri batean dituen iritzia, itxaropenak, interesak eta emozioak.
2. Motivos dominantes: ikasleak, ingelesa ikasteko dituen motibazioak edo arrazoiak.
3. Influencia del ambiente en la motivación del alumno: ikasleak, bere motibazioa eragiten duten ingurugiroari buruz duen iritzia.
4. Personalidad, motivación y rendimiento: ikasleak norberaren ezaugarri pertsonalak eta bere motibazio mailari buruz duen pertzepzioa.
5. Deseo de integración en los países de la LE y actitud hacia sus hablantes: ingelesez hitz egiten duten jendearenganako jarrera eta ingelesez hitz egiten duten lekuetan integratzeko desioa.
6. Grado de motivación: ikasleak bere motibazioari buruz duen pertzepzioa, interesa, jarrera, esfortzua eta bestelakoak kontuan hartuta.
7. Tipos de motivación: ikasleak esperimendatzen dituen motibazio ezberdinak (intrinseko edo estrinsekoa, adibidez.)
8. Fuentes de motivación: irakasleak, familiak, ingelesari ematen zaion garrantzia, ariketa motak eta beste kanpo-eragileek ikaslearen motibazioan duten eragina.
9. Potencial motivador de la LE como asignatura: ikasleak, ingelesak duen garrantziari (hezkuntza, curriculum mailan eta gizarte mailan) buruzko iritzia
10. Situaciones de enseñanza y aprendizaje (factores externos): ikasleak egindako ekarpen edo izandako jarrera eta iritzietan izandako erantzunak, irakasleengandik eta ikasleengandik.
11. Frecuencia de los factores motivadores externos: motibazio intrinseko eta estrinsekoen maiztasuna eta hauek nola kudeatzen diren klasean.
12. Diario del alumno sobre su motivación en clase: ikaslearen iritzia, bere interesa, jarrera, gogobetetasuna eta esfortzuari buruz.
13. Motivación de las tareas de clase: ikasleak, orokorrean, gelan egiten diren ariketa motei buruzko iritzia

14. Motivación del libro de texto y demás materiales curriculares: liburuak edo bestelako materialak erabiltzean ikasleari zerk motibatzen duen gehien eta zerk gutxien.
15. Aspectos motivadores generales del profesor del idioma: irakasle apartekoaren profila nolakoa izan behar den ikasleen iritziz
16. Cualidades motivadoras del profesor: ikasleak duen iritzia bere irakaslearen ezaugarri fisiko, didaktiko, zientifiko eta pertsonalei buruz.
17. Motivación final: ikasleak, hausnarketa egin dezan orain arte izandako esperientziari buruz, izandako erreakzio emozionalak eta jarrerak.

8.2 Galdetegia euskaraz

# GALDETEGIA

## *Ingelesa ikasten ondo konpontzen zara?*

Maila: \_\_\_\_\_

Klasea: \_\_\_\_\_

Sexua: Neska / Mutila

Erantzun galderei aukeratutako erantzunean X bat markatuz. Kontuan hartu 1 inoiz gertatzen zaizula markatzeko dela eta 5 beti gertatzen zaizula markatzeko dela.

<b>Zergatik ikasten duzu ingelesa?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Beste herrialde batzuetatik bidaiatzeko eta hango jendearekin hitz egin ahal izateko.					
2. Bilbora etortzen diren kanpoko pertsonekin hitz egin ahal izateko.					
3. Ingelesezt hitz egiten duten lekuetan bizi ahal izateko (New York, Londres...).					
4. Munduko edozein tokitan lan hobea lortzeko.					
5. Gauza gehiago ikasteko.					
6. Telebista, irratia ingelesez esaten dutena ulertzeko.					
7. Eskolako ingelesa ikasgaia gainditzeko.					
8. Hizkuntza berri bat eta bere kultura ezagutzeko eta ikasteko.					
<b>Ingelesean ona zara?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Uste dut kapaz naizela ingelesa ikasteko.					
2. Uste dut ingelesean nota onak aterako ditudala.					
3. Ingelesa ikasteko gogoia daukat.					
4. Ingelesean nota onak ateratzeko gogoia daukat.					
5. Ariketak zailak direnean ere, ingelesa ikasteko gogoia daukat.					
6. Ingelesezt hitz egiten duten pertsonekin egoteko eta haiekin hitz egiteko gogoia daukat.					

<b>Noizbait gertatzen zaizkizu egoera hauek?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Klaseetan egiten duguna nire intereskoa da.					
2. Klasean parte hartzen dut.					
3. Klasean ez dut parterik hartzen, bakarrik andereñoak/maisua eta nire ikaskideek esaten dutena entzuten dut.					
4. Ingelesean emaitza eta nota onak lortzen ditut eta espero nuena betetzen da.					
5. Andereñoak/maisua, ikasten duguna zertarako den azaltzen digu.					
6. Ingelesean ikasten duguna zertarako den badakit.					

<b>Zenbatetan bizi izan dituzu emozio hauek ingeleseko klaseetan?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Frustrazioa, haserrea.					
2. Erlaxazioa.					
3. Poza, alaitasuna.					
4. Antsietatea, urduritasuna.					
5. Ariketak bakarrik egin ahal izatearen segurtasuna.					
6. Gauzak ondo egiten dudanean, besteek ni zoriontzea.					
7. Sorpresa, harridura.					
8. Klasean adi egoteko gogoia.					
9. Ahaleginak egiteko gogoia.					
10. Klasetik kanpo ingelesez komunikatzeko gogoia.					



8.3 Galdetegia gaztelaniaz

## CUESTIONARIO

### *¿Te apañas bien aprendiendo inglés?*

Curso: \_\_\_\_\_

Clase: \_\_\_\_\_

Sexo: Chica / Chico

Contesta a las preguntas marcando la respuesta adecuada con una X. Ten en cuenta que 1 es para marcar que no te pasa nunca y 5 es para marcar que te pasa siempre.

<b>¿Por qué aprendes inglés?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Para viajar a otros sitios y poder hablar con la gente que vive allí.					
2. Para poder hablar con gente que viene de otros sitios a visitar Bilbao.					
3. Para poder vivir en sitios donde hablan en inglés (New York, Londres...)					
4. Para poder conseguir un mejor trabajo en cualquier parte del mundo.					
5. Para aprender más cosas.					
6. Para poder entender lo que dicen en la televisión y la radio en inglés.					
7. Para aprobar la asignatura de inglés de la escuela.					
8. Para conocer y aprender un idioma nuevo y su cultura.					
<b>¿Eres buena o bueno en inglés?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Creo que soy capaz de aprender inglés.					
2. Creo que saco buenas notas en inglés.					
3. Tengo ganas de aprender inglés.					
4. Tengo ganas de sacar buenas notas en inglés.					
5. Cuando los ejercicios son difíciles, también tengo ganas de aprender inglés.					
6. Tengo ganas de estar con gente que habla en inglés y hablar con ellos.					

<b>¿Alguna vez te han pasado estas situaciones?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Lo que hacemos en clase es interesante para mí.					
2. Tomo parte en clase.					
3. No tomo parte en clase, solo escucho lo que dice la maestra o el maestro y los demás compañeros.					
4. Saco buenas notas y buenos resultados en inglés, y se cumple lo que me esperaba.					
5. La maestra o el maestro nos explica para qué sirve lo que aprendemos.					
6. Yo sé para qué sirve lo que aprendemos en inglés.					

<b>¿Cuántas veces has vivido estas emociones en las clases de inglés?</b>					
	1	2	3	4	5
1. Frustración, enfado.					
2. Relajación.					
3. Alegría, felicidad.					
4. Ansiedad, nerviosismo.					
5. Seguridad en poder hacer los ejercicios yo sola o solo.					
6. Que los demás feliciten cuando hago las cosas bien.					
7. Sorpresa, asombro.					
8. Ganas de estar atenta o atento en clase.					
9. Ganas de hacer esfuerzo.					
10. Ganas de comunicarme en inglés fuera de la clase.					